

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 147/2021 Erabakia, martxoaren 23koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko foru kargu publikoen eta behin-behineko langileen ordainsariak igotzeari

Ordainsariak direla eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauek arautzen dute: enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, haiek garatzen dituzten hainbat arauk, eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarritzko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten du; destino osagarriaren zenbatekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak, Euskadiko administrazio publikoek.

Honako hau xedatzen du Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legeak 18.2. artikuluan:

2021ean, sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsariak ezingo dira handitu oro har ehuneko 0,9 baino gehiago, 2020ko abenduaren 31n indarrean ziren ordainsarien aldean, bi aldiak homogeneotasunez alderatuz, nola langile kopuruari dagokionez hala haien antzinasunari dagokionez.

2021eko martxoaren 16an, Eusko Jaurlaritzak baimendu du soldatak ehuneko 0,9 igotzea, 2020koen aldean, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginarekin. Baimen horrek berekin dakar Gobernu Kontseiluak Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1 a) artikuluan arautzen den destino-osagarria eguneratzea, ehuneko 0,9 igota 2020koaren aldean.

Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua gauzatzeari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak 26.1. artikuluan hau xedatzen du:

Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru partzuergoetako funtzionarioen eta lan kontratuko langileen 2021eko ordainsari osoak, 2020ko abenduaren 31n indarrean egon direnekin alderatuta, foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, erkatu diren bi aldiatarako homogeneotasunari eutsita, bai langileei dagokienez, bai antzinasunari dagokionez. Nolanahi ere, ordainsariak ezin izango dituzte gainditu Estatuaren oinarritzko legerian ezarritako mugak.

Foru arau horren 26.3 artikulua, halaber, hau xedatzen du:

Foru kargu publikoak diren pertsonen doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2021ean, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsariak foru kargu publikoetan aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen dituenetara egokituko dira.

Eta 26.4 artikulua beste hau xedatzen du:

Behin-behineko langileen lansariak kasu bakoitzean berdintzat jotzen diren funtzionario lanpostuen berberak izango dira edota, hala badagokio, lanpostuen sailkapen orokorraren arabera finkatuko dira.

Urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arau horrek hau xedatzen du bigarren xedapen gehigarrian:

Ordainsari igoera ezartzen da 2021eko ekitaldian. Igoera Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak eta baimena ematen zaien foru sektore publikoko gainerako organo eskudunek zehaztuko dute; nolana ere, gehienez ere, Estatuko oinarritzko legerian ezartzen den muga orokorraren bestekoa izango da.

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Arabako Foru Aldundiko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen ordainsariak ehuneko 0,9 igotzea, 2020koen aldean.

Gauzatu da langileen ordezkarietako negoziazioa.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurretiazko fiskalizazioaren aldeko 300/2021 zenbakiko txostena.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta ikusita zer xedatzen duten Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen ordainsariak ehuneko 0,9 igotzea, 2020koen aldean.

Bigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua-rekin lotuta.

Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta

Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA